



URRETXINDORRA mentoretza

Irakaslearen gida

Mentoretzak arrakasta izan dezan, ezinbestekoa da **borondatez parte hartzea**, bai umeek eta baita familiek ere. Horregatik, mentoretza prozesuari buruzko hasierako azalpena egoki ematea garrantzitsua da oso.

Jarraian, horretarako irakasleentzat baliagarriak izan daitezkeen giltzarrietako batzuk zerrendatzen ditugu:

1-Zer da URRETXINDORRA mentoretza-proiektua

Etorkin jatorriko 10 eta 14 urte bitarteko umeei zuzendutako programa da. Helburua haien autoestimua indartzea da eta bere gainontzeko ikastetxeko ikaskideen egoera berdinerara gerturatzeko tresna izan nahi du, hazkuntza pertsonalerako eta inklusiorako edo barneratze sozialerako aukerak eskaintzen dituena.

2- Zertan datza

Adingabekoari bere ezaugarrien araberako ikasle unibertsitarioa edo goi maila zikloko ikaslea esleituko zaio eta ikasturtean zehar, harekin astero hiru orduz elkartuko da, dibertsioa, aisia eta denbora-tarte libre partekatuzko, inguruko tokiak ezagutzeko, kirol-jarduera nahiz jarduera kulturaletan parte hartzeko. Honela, bata bestearenganako elkartze kulturala nahiz soziala sustatzeko eta ikaskuntza pertsonala ahalbidetzeko.

Horregatik, komenigarria da umeen gustu, afizio, trebezi, ordutegi, eta abarrei buruzko informazio ahalik eta zehatzena jasotzea, bikote egokiak egin ahal izateko.

3-Umeen profila

Parte hartuko duten ikasleek honako irizpidetako batzuk bete beharko dituzte:

- Etorkin jatorriko 10 eta 14 urte bitarteko umeak.
- Eskolaz kanpoko ekintza gutxi izan, edo bat bera ere ez.
- Bizi den inguruneari buruzko ezagutza gutxi.
- Berdinen artean harremantzeko zailtasunak. Lotsatia edo “taldez kanpo” egotearen sentazioa ezkutatzeko joera edo arreta deitzekoa.
- Autoestimu baxua edo norbere buruaren ikuspegi negatiboa.
- Komunikazio-gaitasunen garapen eskasa.
- Euskararen ezagutza baxua.
- Gaztelaniaren ezagutza baxua.
- Iritsi berria: Gipuzkoara azken ikasturtean iritsi da.
- Zailtasun ekonomikoak dituen familiako kidea da.
- Gurasorik (aitarik edo amarik) gabeko edo presentzia gutxi duten familiako kidea.
- Unibertsitatean ikasten edo goi mailako zikloren bat egiten ari den inongo erreferenterik ez edukitzea inguruan.



URRETXINDORRA

mentoría social

- Ikasketekin jarraitzeko interes eskasa.
- Gizonezko edo emakumezko erreferente baten beharra.
- Afektibotasun-beharra.

Proiektua zein umerentzat da egokia?

Proiektu hau ez da terapia programa bat, ezta zaurgarritasun egoera larrian dauden umeentzat egindakoa ere, edota emozio, jarrera nahiz familia-arazo larriak dituztenentzat. Kasu horietarako Erakundeek beste tresna eta baliabide batzuk dituzte. Mentoretza prozesuaren helburuek beste mota bateko egoeratarako bideratutako jarduera eta bitartekoak aurreikusten dituzte.

Egoera hauetan ez dauden umeen kasuan, baina gizarte-zerbitzuek artatzen dituztenetan, ikastetxeak, SOS Arrazakeriako lan-taldeak eta gizarte-zerbitzukoek baterako balorazioa egingo lukete.

4-Zer azaldu umearen familiari?

Zenbaitetan, umeek ez badiote ikaskideren bati proiektuaz hitz egiten entzun, zalantza azal dezakete edo oztopoak ikusi. Zentzuzkoa da, ezagutzen ez duen eta bera baino helduagoa den pertsona baten adiskidetasuna eskaintzeaz ari baikara. Horregatik, “kontrol” jarduera edo “eskolarekin lotutako” jarduera dela uste dute askotan. Are gehiago, zenbait familiak hori bilatzen du hain zuzen ere. Edo adingabea astean behin “eusteko” guneren bat.

Horregatik guztiagatik Urretxindorrari buruzko hainbat alderdi azpimarratu nahi ditugu:

1.-Mentoreak borondatez bere denbora eskaintzen dio umeari, denbora-tarte librean elkarrekin pasatzeko eta harentzat **erreferente positiboa** izateko, ikasturtean zehar lagunduko eta gidatu edo bideratuko du. Normalean, hilabete pasatxoan (4 hitzordu) harremana sendotu egiten da, eta berehala, behar bezala eta modu egokian gauzatuko da; hala, bien arteko lotura estua sortzen da eta horrek komunikazio bizia errazten du bi norabidetan.

2.- Helburua ez da **eskola-errefortzua egitea** eta ondorioz, eskola-errendimendua hobetzea, baizik eta aisia eta denbora-tarte libreko jarduerak elkarrekin partekatzea. Datuek diotenez gainera, eskola omen da aldaketa nabaritzen den azken tokia, nahiz eta norbere- eta gizarte- ongizatearen hobekuntzak positiboki eragin dezakeen horretan ere.

3.- Urretxindorran parte hartzeak ez du esan nahi umeak arazorik duenik. Proiektuak ez dio arazo bati erantzuna eskaintzen, bizitzako momentu konkretu batean umea lagunduko duen erreferente bat izateko **aukera** baizik. Mentoreak denbora eskainiko dio, entzun egingo du, eta indartsuago senti dadin lagunduko dio, askotan bizitzan edukitzen ditugun zalantza eta beldurrei aurre egiteko.

4.- Mentorearekin dituen hitzordu guztietara joatea oso garrantzitsua da (astean behin, elkarrekin adostutako egunean). Eta ezin badu joan, garaiz jakinarazi beharko



URRETXINDORRA

mentoría social

dio. **Komunikazioa** ezinbestekoa da programa behar bezala eta modurik hoberenean gauzatu ahal izateko.

Horregatik, garrantzitsua da Urrentxindorrak eskaintzen duen zerbitzua zehatz-mehatz azaltzea, eta umeen eta familien zalantzak modurik hoberenean argitzea.

5-Ikastetxearen jarraipena

Mentoretza ongi gauzatzeak adingabeen eguneroko zailtasunak gutxitzea erraztuko du, hala nola, lotsa, beldurra, ziurtasunik eza, autoestimua osasuntsuaren eta proiektzioaren garapena zailtzen duten jarrerak.

Oso garrantzitsua da umea programan lagunduta sentitzea. Jakin eta egiazta dezan familiak eta irakasleek prozesu honetan laguntzen dutela. Zentzu horretan, ohitura ona litzateke irakaslea, hilean behin, umea bere bikotearekin eta egiten dituzten jarduerekin gustura dagoen ala ez egiaztatzea.

SOS Arrazakeriako lan-talde batek ere adin gabe bakoitzari elkarrizketa egingo dio, urtarrilean eta maiatzean, haiek duten iritzia aurrez -aurre ezagutzeko.

6. Umeen hautaketa-prozesua

Proiektuko parte-hartzaile izan litezkeen umeen hautaketarako faseak:

1. Ikastetxeak proiektuko baldintzekin bat etor litezkeen umeak identifikatuko ditu.
2. Ikastetxeak proiektua umeari eta haren familiari aurkeztu eta azalduko die.
3. Umeak eta familiak interesa badute, ikastetxeak fitxa beteko du eta SOS Arrazakeriara bidaliko du.
4. SOS Arrazakeriako lan-taldea aurrez hautatutako umeekin eta haien familiekin bilduko da (banan-banan).
5. Parte-hartzaileen behin-betiko hautaketa egingo da.



URRETXINDORRA

mentoría social

Urretxindorra y Covid-19.

La situación de inseguridad, soledad y vulnerabilidad generada por el Covid-19 y el Estado de alarma decretado para hacer frente a la crisis sanitaria ha afectado en mucha medida a los y las niñas que suelen tomar parte en este proyecto. La mayor soledad, la precariedad económica y habitacional de las familias, la brecha educativa respaldada por la brecha social han demostrado el impacto del origen social, étnico y cultural en el bienestar psicosocial de la infancia.

En esta realidad, la importancia de los proyectos de mentoría con menores en edad escolar adquiere una dimensión aún mayor. La presencia de una mentora o mentor que acompaña, que escucha, asesora, comparte, socializa con el niño o la niña supone para los niños/as poder exteriorizar su angustia, compartir sus dudas, exorcizar los miedos, a la vez que poder relajarse y distraerse.

Durante el curso 2021/2022, la mentoría se llevará a cabo y se adaptará a las circunstancias dictadas por la pandemia.

- Se realizará mentoría presencial con las debidas medidas de seguridad.
- En caso de no poder realizarse presencialmente, se realizará mentoría virtual a través de llamadas y videollamadas.
- Se enfocará y adaptará la mentoría a las necesidades de los y las niñas, teniendo en cuenta las dictadas por el nuevo contexto educativo virtual, intentando ofrecer un apoyo y acompañamiento para adaptarse a ello y gestionar la posible ansiedad generada por la educación online.